



DESENGAINOA

MARIASUN LANDA ETXEBESTE

Ikastaroa ondo burutzeko maitemintzea dela bide zuzenena erakutsi dit nire esperientzia gazteak. Honek arraro samar badirudi ere, utziezaidazue ihaz gertatu zitzaidana kontatzen. Horrela hobeto ulertuko nauzuela uste dut eta.

Udaberri aldean izan zen. Bapatean, gauza arraroak egiten nituela konturatu nintzen. Giltza atera komuneko atea irekitzeko, kafesnetan behatza sartu azukrea nahasteko, aterkia atera egun eguzkitsuetan... Nire poltsan hiru Dukados pakete eta bost pospoilo kaxa aurkitu nituenean, «hik zerbait grabea dun neska!» esan nion nire buruari. Nire gelako ohe gainean etzanda, sabaiari begira, bihotzeko taupadak kontatzen hasi eta berehala, argiro, nire egoera nahastuaren zergatia ulertu nuen. Zeren, sabai zurian, Jose Joakinen irudia agertu bait zitzaidan:

—O!!

Amenjesus batean egiaz jabetu nintzen: **MAITEMINDURIK NEGOEN!** Sabaian agertzen zen Jose Joakinen irudiak pasaportarako egindako argazkitxoa zirudien: ile kizkur erotuak, bigote luzexta, begi aluzinatuak, irrifar lizuna... Hura ikustean, «Jose Joakin! Jose Joakin... ene maitea!» murmurikatzea, besterik ez zitzaidan atera. Bihotza danbadaka, ai! maitemindurik ote?... Zer egin, nora joan? Zeren, noren hatzaparretan giltzapeturik nengoien?... «ez dun posible neska! Ez hago ganbaratxotik ondo! Nor eta Jose Joakin!» errepikatzen nion nire buruari...

Orduantxe hasi ziren, bai, niretzat, egun beltzak. Baita egun arroxak eta moratuak ere. Hau da, kolore guztietako egunak ezagutu ahal izan nituen. Egundak barau, besteak litxarreriz leporaino, gauez ilargiarri so, egunez erdi lotan... Edo permanente berri bat txima zatarrak apaintzeko, edo krema berezi horietako bat aurpegiko granoentzako. Hau da, erdi eroturik nenbilen. Ai! Baina nire gelako sabaian Jose Joakin ikusten nuenean... zer nolako zirrara! Zer nolako zirti-zarta! Maite haut, maite!

Ezinegonean bizi, petral eta mantekila bezain biguin egunak igarotzea ez zen posible. Egundak batean, egunkarian, horoskopoko delako horretan, «**EGIA ESAN IEZAION**» gomendatzen zidatela irakurri nuenean, nire bizitzako erabaki ausartena hartzea bururatu zitzaidan: maitemindurik nengoela aitortu behar nion ene Jose Joakin pottokoari!

Eta berehalaxe, burruka horretarako armak eta erramientak zorrotzen hasi nintzen. Alexander Handiak ere ez zukeen guda horretarako plan zehatzagorik egingo. Zer esan behar niokeen eta nola. Honelako hitz, bestelako jarrera. Dignitatea galdu gabe, baina maitekiro.

Nire egunkari izkutuan esaera estratejikoak apuntatzen nituen:

— «Jose Joakin, hire argazkitxoa nire gelako sabaian agertzen zaidanean... (Ez, ez, eroa nagoela pentsatuko luke eta...)

— «Jose Joakin, hirekin maitemindu naizenetik, seko izorratuta natxiok! (Ez, ez, zer baldarra naizen...)

— «Jose Joakin, ene maite kuttuna! Hi haiz ene bizitzako arrazoin bakarra, ene eguzki bakarra... (Ez, ez, bigunkeriarik ez!)

— «E, hi! Ba al dakik hitz pentsatzen dudela egunak dituen 24 ordu luzeetan?... (Ez, zuzenki joanda, askotan ez da hobeto ailegaten!)

Azkenean, nire bihotza eta buruaren arteko konsenso batez horniturik, frontoian hurbildu nintzaion Jose Joakini...

Pinbi, panba, pelotaren hotsa eta ni han, zutik, belaanak indargabe, burua hutsa, desmaiatzeko zorian:

— Hirekin hitz egin nahi diat-esan nion, nekatuta baina farrezka hurbildu zitzaidanean, Bale! Egardia zuela eta taberna batetara eramán ninduen...

—Hik zer hartu behar dun? — izerditan blai zegoen nire potxolo maitea.

— Kamomila bat-erantzun nion nik, mila suge dantzari estomago zuloan sentitzen nituela.

— Bueno neska, zer esan nahi didan? Zer dun polita?

Ai, ama! Zerukoa eta lurekoa! Hura izan zen une garratza! Non nire diskurtso ederra! Non nire hitz neurtuak! Bapatean, dena ahaztu nuen. Zeharo.

— Maite haut!

Tiro bat eskopetatik ateratzen den eran aitortu nion egia latza. Isildu zen bera. Mututu nintzen ni, hainbeste ahalegin egin ondoren. Kamomila hura edan behar nuen ala ez, galdetu zidan. Eta edan nuen nik, bada, kamomila madarikatu hura. Tabeman, txakur pintto bat hurbildu eta nire Jose Joakinen hanketara sartu zen. Hasi zen bera txakurrarekin jolasten eta azken kamomila tantoak zurrupatu nituen nik. Isilik biok. Bapatean, Jose Joakinek begiratu ninduen. Aurrez-aurre eta arpegi serio eta kezkatiz...

— Hik badakin zer proposatzen didanan? — (Ez, ez bait nuen ezer proposatzeko aukerarik oraindik izan. Nire ausardia ez zen horretaraino iristen). — Hi ez haiz konturatzen zer den holako roilo batetan sartzea!

Azken finean, zer esan nahi din «maite haut» horrek?... Ezer ez! (Piztu zuen zigarro bat). Nik ere maite haudanala esaten dinat. Biok pozik. Biok alai. Bale! Eta gero zer?... Hik uste dun, bikotearen amodioak irauten duenik? Guk ezkontzen gaitun. Bale. Hi etxean nire alkandorak plantxatzen, ni ordu pilo bat ofizinan sartzen, ezta?... Hi, nazkatuta. Ni ere bai. Elkar maitatzea bai. Zergatik ez, baina noiz arte amodio hori?...

Hik errez esaten dun «maite haut», hik ez dun hori aztertu! Begira, hobeto dinagu elkar maitatzea baina... noizik behin ikusiz, edo elkar lotu gabe, edo nik ez zekinat! Nik ere estimatzen haut, baina besteek hanka sartu duten zuloan erortzekotan... Ez zekinat ulertzen didanan...

Ba, egia esan, haseran ez nion gauza handirik ulertzen. Edo ulertu nahi ez. Ez dakit. Baina, poliki-poliki, tipo bat bakarrari hain maitasun jarioz lotzeak mugaketa zenbait bazuela edo, konturatzeraz iritxi erazi ninduen. Nire planteaketak aski paseak zirela eta egungo haize berrietan dantzatu behar genuela, jabetu erazi ninduen. Eta ez hori bakarrik. Orduantxe, hain zuzen, eta nire Jose Joakini esker, nire egoismo motz eta itsuz jabetu nintzen. Mementu haietan, Euskadik geure maitasun indar beroak behar zituela, geure giza-hizkuntza eta nazio zapalkuntzaren aurka jo behar genuela eta... ni maitasun gorabeheretan! Txorakerietan iharduteak ez zuen barkamenik!

Ia nigarrez hasi nintzaion. Nola izan nintekeen hain itsua! Handik aurrera, zuzenduko nituen nire gogoetak. Agur Jose Joakin! Agur ene lagun maitea! Eskertzen diat, benetan. Ulertzen haut... bai, bai. Garbi zegok orain.

Etixerakoan, nire bizitzari giro berri bat eman behar niolakoan itzuli nintzen. Burua ideia berriz beterik...

Tamalez, ama ez zen horretaz konturatu eta iritxi bezain laister, izebaren etxera bidali ninduen, han utzi omen zuen kartera jasotzera... Bueno, berriro kalera. Burua makur eta urrats luzez zeharkatu nuen herriko plaza. Eta hara non ikusten dudan Jose Joakin, neska bati eskua emanda, kafetegitik irtetzen dela. Harri eta zur gelditu ni. Are gehiago jardinetaruntz doazela ikustean... Eseri ziren biak, hestu eta amoroski. Besoa, neskaren lepotik pasa eta elkarri musuka hasi ere bai... Nire petxuan zerbait lehertu zen. Korrika, korrika egitea, besterik ez zitzaidan bururatu. Izebak, nire anaia txikiari eman ziola kartera esan zidan. Ea zer gertatzen zitzaidan galdetu ere bai. Baina erantzunik ez nion eman. Bihotza urratuta sentitzen nuen. A, zer nolako traidorea! Niri dotriña irakasten eta bera...

Bueltatzerakoan, ez nuen jardinetaruntz begiratu eta gau hortatixek hasi nintzen bero eta sutsu estudiatzen.

Nire gelako sabaiaren ez zen geroztik inoren argazkirik azaldu. Eta C.O.U. delakoa pasa nuen. Goren batekin, gainera!

